

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Laudioko Udal Euskaltegian administrari postuan aldi baterako zerbitzuak prestatzeko lan poltsa bat sortzeko deialdiko oinarriak**

Udal Euskaltegiaren Administrazio Kontseiluko Lehendakariak, 2015ko urriaren 19an, ondoko erabaki hau hartu zuen: onartzea lan poltsa bat sortzeko ondorengo oinarriak, Euskaltegi honetan administrari legez aldi baterako zerbitzuak prestatzeko:

##### **Lehenengoa. — Deialdiaren helburua**

Deialdi honen xedea da lan poltsa bat sortzea Laudioko Udal Euskaltegiko langile beharri-zanak bitarteko funtzionario langileen bidez betetzeko, funtzionarioen aldi baterako ordezkape-nak direla eta (bajak, oporrak eta hitzarmenean aurreikusitako baimenak) edo noiz behinkako zereginak, beraiek oso osorik gauzatu ezin dituztenak, burutzen laguntzeko.

Lan poltsen bidez hornitu beharreko postua Lan Postuen Zerrendan (LPZ) islatuta dago zereginak metatzeagatik edo obra- lan edo zerbitzu jakin batek noiz behin gauzatutakoen salbuesenez eta haxe izango da:

Administraria:

Titulazioa: Goi Batxilerra, 2. Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

IT txartela: Word XP oinarrizkoa, Excel oinarrizkoa y Access oinarrizkoa.

Euskara perfila: 3. Hizkuntza eskakizuna edo baliokidea

##### **Bigarrena. — Bitarteko funtzionario izendatzea**

Pertsona aukeratuekin egingo den izendapena Laudioko Udal Euskaltegia erakunde auto-nomoaren beharren arabera izango da.

##### **Hirugarrena. — Lanpostuaren egitekoak**

Lanpostuaren egitekoak ondoko hauek guztiak izango dira:

- Jendaurreko jarduna: informazio orokorra, aholkularitza, eta laguntza teknikoa.
- Matrikulazio lana.
- Era guztietako ziurtagiriak, gutuneria, fakturak eta txostenak.
- Beka eskabideak
- Hainbat dokumentu egitea: eskaerak, Lehendakariaren erabakiak, kreditu aldaketak...
- Udaleko zenbait arloekin batera: kontabilitatea, bajak, kontratuak...
- Diru-laguntzen eta euren epeen jarraipena.
- Ikasturte hasierako dokumentazioa HABEri helaraztea.
- Q87 aplikazioaren bitartez, taldeen eta ikasleen asistentzia eta ebaluazioa kudeatzea.
- Beste erakunde batzuekin batera lan egitea, esaterako, IRALEREkin, HAEEREkin eta EUS-TATEkin.
- Bulego materiala antolatu eta banatu.

- Material didaktikoa erosteko eskaerak egin.
- Irakasleekin batera koordinazio bileretan parte hartzea.
- Eta, oro har, bere mailari dagozkion bestelako zereginetan.

**Laugarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak**

Ondorengoak bete beharko dira onartua izateko eta, balegokio, lehiaketan parte hartzeko:

a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo nazioartean sinatutako lan kontuetarako hitzarmena duten herrialdeetakoren batekoa izatea. Europar Batasuneko ki-deen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, izatez bananduta ez badaude; baita euren seme-alabek edo euren ezkontideen seme-alabek ere, betiere ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude. Seme-alabok hogeita bat urte baino gazteagoak edo zaharragoak izan daitezke, baldin eta gurasoen lepotik bizi badira. Aurreko paragrafoetan ageri ez eta espainiar estatuan bizi diren atzerritarrek ere hartu ahalko dute parte. Aukeratuak izango balira, kontratua sinatu baino lehen dagokion administrazioaren baimena dutela egiaztatu beharko lukete.

b) Hamasei urte beteta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta derrigorreko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabea izatea.

c) Ez izatea gaixotasunik edo akats fisikorik zereginak era normalean gauzatzea eragotziko liokeena.

d) Estatuko Administrazio, Autonomia edo Toki-Administrazioetik diziplinazko espediente bitartez bereizia izandakoa ez izatea, ez eta zeregin publikoetan aritzeko gaitasun gabetuta ez egotea.

e) Legezko ezgauza edo batera ezintasun kasu batean sartuta ez egotea.

f) Ondoko titulazio akademikoaren jabe izatea: Titulazioa: Goi Batxilerra, 2. Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. IT txartela: Word X P oinarritzkoa, Excel oinarritzkoa eta Access oinarritzkoa.

g). 3. Hizkuntza eskakizunaren jabe izatea.

**Bosgarrena. — Eskabide-orriak**

Lehiaketan onartua izateko eskabideak Laudioko Udal Euskaltegia erakunde autonomoko presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoren zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte bartzertuak ez izateko:

a) Deialdiaren laugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Era berean, lehiaketaldian baloratuko diren merituei buruzko datuak ere adierazi behar dituzte, behar bezala egiaztaturik. Ez dira baloratuko eskabidean zehaztu ez diren merituak.

b) Horiez gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da eskariarekin batera:

- NANaren fotokopia.
- Eskatutako euskararen ziurtagiriaren eta titulazio akademikoaren fotokopia.
- Deialdi honek kontuan hartu eta eskatzaileak aitortzen dituen merezimenduen agirien fotokopia.

Eskarmentua erakunde publikoren batek luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

c) Eskabideak aurkezteko izangaiek 10 laneguneko epea izango dute, oinarriak ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Eskabideak, behar bezala beteta, Laudioko Udal Euskaltegiko idazkaritzan aurkeztuko dira goizeko 9: 00etatik 14: 00etara.

Era berean, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legea onartzeko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalak xedatutako Herri Administrazioen erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta dagokion langileak data eta zigilua jarri beharko die, eskabideak aurkezteko epearen barnean.

#### **Seigarrena. — Izangaiak onartzea. Deialdiak eta jakinarazpenak**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartu eta baztertu diren izangaiei behin-behineko zerrenda onartuko du Laudioko Udal Euskaltegiko presidente delegatuak. Zerrenda Udal Euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuko da. Era berean, erabaki horretan bertan agertuko dira epaimahai kalifikatzailearen kide titular eta ordezkoen izendapena.

Aipatutako zerrendatik kanpo geratu diren izangaiek 5 laneguneko epea izango dute, zerrendatik kanpo geratu izana arrazoitu duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko. Behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko aurrekoaren modu berean argitaratuko den erabaki berrian.

Epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak, Laudioko Udal Euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuko dira.

#### **Zazpigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea**

Hautatze prozedurako Epaimahai kalifikatzailearen osaera haxe izango da: presidentea, 2 mahaikide eta idazkaria, hizpidez baina boto barik, eta dagozkien ordezkoekin.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen arteko botoen gehiengoz hartuko dira. Berdintze kasuan Presidentetzat edo Epaimahai burutzat jardungo duenak ebatziko du.

Gerta litezkeen abstentzio edo errefusapenen ondorioetarako, Hautatze Prozedurako Epaimahaiaren osaera eta eraketa jendaurrean erakutsiko da 10 lan egunetan zehar.

#### **Zortzigarrena. — Hautaketa prozedura**

Hautaketa prozesuak bi zati izango ditu meritua lehiaketa eta elkarriketaldia.

Onartuen zerrendan agertzen diren izengaiak zuzen pasatuko dira meritua lehiaketara.

##### **Meritua lehiaketa**

Epaimahaiak, lehiaketaldi honetan, ondorengo meritua baloratuko ditu, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera eskabidean aipatuak izan badira eta eskatutako dokumentuen bidez egiaztatutako badituzte izangaiek, beti ere:

1. Administrazio publikoan, administrari lanetan, izandako esperientzia (egiaztatua): 2 puntu gehienez.

Lanean aritutako 3 hilabeteko 0,2 puntu.

2. IT txartela: gehienez 0,6 puntu:

a) Word XP aurreratua 0,2

b) Excel aurreratua: 0,2

c) Access aurreratua: 0,2.

3. 4 Hizkuntz eskakizuna edo baliokidea: 5 puntu

4. Titulazioaren arabera:

b) Euskal Filologian Doktoretza: 3 puntu.

c) Euskal Filologian lizentziatura edo gradua: 2 puntu.

5. Helduen euskalduntze arloan izandako esperientzia (HABEk egiaztatua): 3 puntu gehienez. 0,5 puntu irakasle aritutako 500 orduko

Behin meritua lehiaketa eginda, lehenengo hamar postuetan geratzen diren izengaien elkarriketa bat egin beharko lukete. elkarriketak 5 puntu balio izango du gehienez ere.

**Bederatzigarrena. — Merituen kalifikazioa, Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea**

Lehiaketan eta elkarriketan lortutako puntu guztiak batu eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Merituen kalifikazioa amaitzean, Epaimahaiak iragarki taulan jarriko du jendaurrean izendagaien zerrenda hurrenkeraren arabera.

Puntuazio bera lortuko balute hainbat izangaik, 4. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duenaren aldekoa izango da erabakia, eta hala ere, berdinketak iraungo balu, zozketa bidez erabakiko da.

Lan-poltsako zerrendako lehentasun ordena erabakigarria izango da beharrak betetzeko.

Emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko, argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

**Hamargarrena. — Gorabeherak**

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta. oinarri-arau hauek ezarritakoarekin bat etorritik, lehiaketa ondo burutu dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Epaimahaiak proposamena egingo dio Audioko Udal Euskaltegia erakunde autonomoko Administrazio Kontseiluari eta honek dagokion erabakia hartuko du. Deialdiaren oinarri-arauen eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio egintzen aurka egin ahal izango da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio jardunbidearen 30/1992 Legean aurreikusitako epeetan eta forman.

Laudion, 2015eko urriaren 19an

*Lehendakaria*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*